Entendemos que, la propuesta que hoy vamos a votar aquí, es un crédito adicional realizado entre todos/as, o un crédito adicional del presupuesto que se aprobó en noviembre; nos parece una propuesta para que todos los grupos se sientan representados. Yo también podría decir que algunas de las propuestas que se han presentado desde el punto de vista procedimental ya están presupuestadas, por ejemplo, que estaban presupuestadas en el mes de noviembre y que estaban aprobadas, y que se vuelven a proponer, o que las cantidades propuestas no son factibles con la realidad de la ejecución: antes se ha mencionado que el gasto anual comparable al del proyecto en



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

daitekeena, eta horregatik urte anitzeko inbertsioak egiten dira, eta horrela jaso beharra dago aurrekontuetan…Edo beste hainbat gai.

su conjunto... lo que es factible es gastar todos los años, por eso se realizan inversiones plurianuales, y así hay que reflejarlo en los presupuestos... o muchos otros temas.

Baina nahiago ditut esker oneko hitzak izan. Bai Abotsanitz, EAJ, Alderdi Sozialista eta EH Bilduri eskerrak eman nahi dizkiet eginiko lanagatik eta eginiko proposamenengatik. Eta politikaren testuinguru honetan bakoitzak atera ditzala bere ondorioak, ni behintzat pozik nago egindako prozedurarekin, egindako lanketarekin, agian ohitu beharko gara, baina uste dut horrela askoz ere hobe erantzuten diola herri proiektu batzuei herritar ordezkariok garen aldetik partekatzen ditugunean eta denon artean proposatzen ditugunean. Beraz, mila esker guztioi.

Pero prefiero tener palabras de agradecimiento. Quiero agradecer a Abotsanitz, PNV, Partido Socialista y EH Bildu el trabajo realizado y las propuestas realizadas. Y que en este contexto político cada uno saque sus conclusiones, al menos yo estoy contento con el procedimiento realizado, con el trabajo realizado, quizás tengamos que acostumbrarnos, pero creo que así responde mucho mejor a algunos proyectos de la ciudad cuando los compartimos como ciudadanos representativos y los proponemos entre todos/as. Por lo tanto, muchas gracias a todos/as.

Ongi baderitzozue bozketara pasako gara, diktaminatutako 8/2024 zenbakiko aurrekontu aldaketa kreditu gehigarri bidez onartzeko proposamenaren aldeko bozkak? Aurkakoak? Eta abstentzioak? Gehiengoz onartuta, beraz.

Si os parece correcto pasaremos a votar la propuesta de aprobación de la modificación presupuestaria nº 8/2024 dictaminada mediante crédito adicional. ¿Votos a favor? ¿en contra? ¿abstenciones? Aprobado por mayoría.

## HIRI ETA LURRALDE ANTOLAKETA BATZORDEA

## COMISIÓN DE ORDENACIÓN URBANA Y TERRITORIAL

### 4.-KAI BERRIA 68 HEAren SAREEN BILTEGIKO PABILOIAREN XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA.

### 4.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DEL PABELLÓN DE ALMACÉN DE REDES DEL AIU 68 KAI BERRIA.

Kai Berria 68 HEAren sareen biltegiko pabiloiaren xehetasun-azterketa behin betiko onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación definitiva del Estudio de Detalle del pabellón de almacén de redes del AIU 68 Kai Berria.

2024ko maiatzaren 23ko Hiri eta Lurralde Antolaketa Batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Ordenación Urbana y Territorial de 23 de mayo de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:
Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (4), PSE-EE-PSOE (2) eta EH Bildu (2).

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:
Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (4), PSE-EE-PSOE (2) y EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** 68 Kai Berria HEAn sareak biltegiratzeko eraikin berriaren Xehetasun

**PRIMERO.-** Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle del nuevo edificio de almacén de redes



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

Azterketa behin betiko onartzea.

en el AIU 68 Kai Berria.

**BIGARREN.-** Behin betiko onarpen erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta behin betiko onartutako xehetasun azterlan dokumentua udalaren webgunean.

**SEGUNDO.-** Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y el documento de Estudio de Detalle definitivamente aprobado en la web municipal.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

Hurrengo puntua Hiri eta Lurralde Antolaketa Batzordetik dator, laugarren puntua Kaiberria 68HEEren sareen biltegiko pabiloiaren Xehetasun Azterketa behin betiko onartzeko proposamenari dagokiona, eta Estitxuri emango diot hitza.

El siguiente punto proviene de la Comisión de Ordenación Urbana y Territorial, el cuarto punto se refiere a la propuesta de aprobación definitiva del Estudio de Detalle del pabellón del Almacén de Redes del A.I.U. 68 Kaiberria, y paso la palabra a Estitxu.

**URTIZBEREA ANDREA:** Mila esker, Igor, arratsalde on guztioi.

**LA SRA URTIZBEREA:** Muchas gracias, Igor, buenas tardes a todos/as.

Bueno, bada Igorrek esaten zuen bezala gaur aurkezten den Xehetasun Azterlan honen xedea da Kofradiak duen arazo bati soluzioa ematea, izan ere Kaiberrian sareentzako biltegi bezala erabiltzen den eraikina zaharkituta geratu da, espazioa txikia dute, eta beraien funtzioetan gatazka handiak sortzen dizkie. Eta beraz, proposatzen dutena da, oraingo eraikina dagoen lekuan eraikin berri bat egitea, oinplano zabalagoa duena.

Bueno, pues tal y como decía Igor, el objeto de este Estudio de Detalle que hoy se presenta es dar solución a un problema que tiene la Cofradía, ya que el edificio que se utiliza en Kaiberria como almacén de redes ha quedado obsoleto, tiene poco espacio y genera grandes conflictos en sus funciones. Y, por tanto, lo que se propone es la construcción de un nuevo edificio, de planta más amplia, donde se encuentra el edificio actual.

Hau dela eta, pixka bat kokatzeko, esan nahiko nuke Kaiberriko eremu hori ordenatzen duen Plan berezi bat dagoela, 98. urtean onartutakoa, eta plan berezi horren arabera, nahiz eta aurkezten duten proiektuak ez duen eraikigarritasuna handitzen, de hecho zertxobait jaisten duen, oinplano zabalagoa edukitzerakoan behartuta gaude Xehetasun Azterketa hau aurkeztera.

A este respecto, para situarlo un poco, me gustaría decir que existe un Plan Especial que ordena este ámbito de Kaiberria, aprobado en el año 98, y según este Plan Especial, si bien el proyecto que presentan no supone un incremento de la edificabilidad, sino, de hecho, una ligera disminución, estamos obligados a presentar este Estudio de Detalle al tener una planta más amplia.

Gainera, esan beharra dago ere, ez dela lehenengo aldia Kofradiak arazoak dituela sareen bai konpontze eta bai biltegiratzearekin, eta 2017an ere beste azterlan bat aurkeztu zutela, eta orduan egin zutela bigarren eraikin bat eta lehenengo eraikinetik sare konpontze funtzio hori bigarrenera pasa zuten, pentsatuz lehendik zegoenean biltegira bideratzearekin nahikoa izango zutela; baina ez da horrela izan, izan ere azkeneko urteetan sareak asko handitu dira, 10 tonako sareez hitz egiten ari gara, eta duten eraikina ez zaie balio.

Además, hay que decir que no es la primera vez que la Cofradía tiene problemas con el tema de la reparación y el almacenamiento de las redes, y que en 2017 también se presentó un nuevo estudio, y que se construyó un segundo edificio y que se pasó desde el primer edificio esa función de reparación de la red al segundo, pensando que el que ya existía sería suficiente con destinarlo a almacén; pero no ha sido así, ya que en los últimos años las redes son mucho mayores, se está hablando de redes de 10 toneladas, y el edificio que tienen no les sirve.

ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

Hau horrela, Kofradiak bere burua behartuta ikusi du Pasaiako beste biltegi bat alokatzera, eta gainera sareen garraioa bera ere arazo bat da: ezin dute errepidez egin, eta barkuan eramaten dituzte, honek eragiten dituen bai diru galera eta gestio arazo guztiekin, ez da hala? Beraz, hau honela, beraiek planteatzen dutena da oraingo eraikinak bi solairu ditu, eta beraz, izango zen hori dagoen lekuan berri bat egin, esaten dudan bezala oinplano zabalagoa, baina solairu bakarrekoa, eta hor bai moldatu jada bai, sareak, bertan biltegiratzeko, eta bueno, kudeaketa arazo guzti horiek bertan konpontzeko.

Beraz, egia da nahiko arazo kafkiano baten aurrean aurkitzen direla, eta horrekin jabetuta, prozeduraren gainean ibili gara, eta zuek ikus dezazuen 2022. abenduan hasi zen prozedura, proiektua sartu zuten, eta hasierako onarpena dekretuz eman genion azaroan; egia da hasierako onarpen hori beste sektorialetara, hau da, beste administrazio batzuetara bidali behar dela, hor ez dago gure esku, sektorial horiek noiz erantzuten duten, baina bueno, egia da ere dexente ibili garela eta haiek egindako ekarpen guztiak jasota, pasa den astean sartu dute proiektu berria, haiek egindako, sektorialek egindako proposamen guztiekin, eta Batzordera eraman genuen Udal Arkitekto andrearen aldeko txostenarekin, eta gaur Udalbatzara dakargu onartzera, beraz aste hamar eguneko buelta honetan bidea eman diogu. Uste dut…Batzordean hala gertatu zen, Alderdi guztien aldeko bozka jasoko duela, izan ere nik uste dut denok jabetuta gaudela beharra benetakoa dela eta bueno, horixe. Mila esker.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, Estitxu. Taldeek zerbait esatekorik? Iosu…

**ALVAREZ JAUNA:** Bai, bueno, esan, bakarrik, proiektu hau oso proiektu interesgarria da, ez da berria, zaharra da, lehenbiziko lanak egin ziren sareak konpontzeko edifizio hori zabaltzea zela, orain dela 6 bat edo 4 bat edo 5 bat urte, oso garrantzitsua izan zen hura, porque azken finean emakumeen lanak, han zeuden Bentaren inguruan, hotzarekin, situazio nahiko penagarriarekin. Sareak konpontzeko edifizioa egin zenean, ikusten zen, baita ere, bigarrengo objetkiboa izango litzatekeela sareak konpontzeko edifizio hau. Edifizio hau, zenbait arrazoi zituen, porque azken finean sareak

En este sentido, la Cofradía se ha visto obligada a alquilar otro almacén de Pasaia, con el consiguiente transporte de las redes, lo cual es un problema: no pueden transportarlas por carretera y las llevan en barco, con todas las pérdidas de dinero y de gestión que ello acarrea, ¿no es así? Por lo tanto, lo que ellos señalan es que el edificio actual tiene dos plantas, por lo que habría que hacer uno nuevo en dicha ubicación, como digo, de una planta más amplia, pero de una sola planta, donde se ubiquen las redes para almacenarlas, y bueno, para solucionar todos esos problemas de gestión.

Por lo tanto, es cierto que se encuentran ante un problema kafkiano y, conscientes de ello, hemos analizado el procedimiento: se inició en diciembre de 2022, se introdujo el proyecto y lo aprobamos inicialmente por decreto en noviembre. Es cierto que esa aprobación inicial ha de ser remitida a otras administraciones sectoriales, es decir, no está en nuestras manos cuándo responden estas sectoriales, pero bueno, también es cierto que hemos estado muy encima y que una vez recogidas todas las aportaciones realizadas por ellas la semana pasada han incluido el nuevo proyecto, con todas las propuestas realizadas por las sectoriales, y lo trasladamos a la Comisión con el informe favorable de la Sra. Arquitecta Municipal, y lo traemos hoy al Pleno para su aprobación, por lo que estos diez días debemos tramitarlo. Creo que… en la Comisión así ocurrió, que todos los partidos votarán a favor, porque yo creo que todos/as estamos convencidos/as de que la necesidad es real y, bueno, eso. Muchas gracias.

**EL SR ALCALDE:** Gracias, Estitxu. ¿Algún comentario de los grupos? Iosu...

**EL SR ALVAREZ:** Sí, bueno, decir solo que, este proyecto es un proyecto muy interesante, no es nuevo, es antiguo; se hicieron los primeros trabajos para ampliar el edificio en el que se arreglan las redes, hace 6 o 4 o 5 años. Fue muy importante porque al fin y al cabo los trabajos de las mujeres, en torno a la Venta donde estaban, con frío, era de una situación bastante penosa. En el momento en que se realizó el edificio para la reparación de las redes, también se observaba como segundo objetivo este edificio para la reparación de las redes. Había varias razones por las que era



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

handitu egin dira, sareak Pasaiara joaten ziren, kamioian eramaten zituzten, barkuz joan, etorri, eta neketsua egiten zen arrantzalearentzat. Guk alde horretatik beti esan dugu gure gaia, gauzak arrantzaren inguruan…errazteko gauzak, eta guk ikusten dugu proiektu hau beharrezkoa dela, nik ikusten dut lehenagotik posible izan bazen hobe, baina bueno, ya que orain gauden, bada… zegoen edifizioak, egia da problemak zituen sareekin, humedade handiarekin, bere garaian edifizioa egin zen emakumeek konpontzeko sareak, baina bueno, hor problema batzuk zeuden, berotasuna zegoela, eta…. Guk uste dugu oso elementu inportantea dela sareak konpontzeko xaia hau egitea. Gure botoa aldekoa izango da.

necesario este edificio, al fin y al cabo las redes son más grandes, las redes iban a Pasaia, las llevaban en el camión, ida y vuelta en barco, y resultaba pesado para el pescador. Nosotros/as siempre hemos dicho en este sentido que, las cosas en torno a la pesca... hay que facilitarlas, y nosotros/as vemos que este proyecto es necesario. Yo lo que veo es que si hubiese sido antes ,mejor, pero bueno, ya que ahora estamos, pues...el edificio que había es verdad que presentaba problemas en el tema de las redes, había mucha humedad, en su día se construyó para que las mujeres repararan las redes, pero bueno, ahí había algunos problemas, debido al calor…Nosotros/as pensamos que es muy importante qu ese construya esta xaia para la reparación de las redes. Nuestro voto será a favor.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Bai gogoratu lan hauek irauten duten bitartean herritarrek ere, bereziki hasierako tartean sufrituko ditugula kamioien joan-etorriak eta molestoa…obra asko izaten diren bezala trabak eragingo dituela eta pazientzia pixka bat eskatuko dugu, baina bakoitzaren iritzia jakiteko, ongi baderitzozue laugarren puntu honen bozketara eramango dugu. Aldeko bozkak? Aho batez onartua, beraz.

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias. Hay que recordar que durante el tiempo que duren estos trabajos, especialmente al principio, sufriremos los desplazamientos de camiones y molestias... como muchas otras obras va a provocar molestias y vamos a pedir algo de paciencia, pero para conocer la opinión de cada uno/a, si os parece bien, vamos a proceder a votar este cuarto punto. ¿Votos a favor? Aprobado por unanimidad.

**NORTASUNA SENDOTZEKO BATZORDEA**

**COMISIÓN FORTALECIMIENTO DE LA IDENTIDAD**

**5.-HONDARRIBIKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2023-2027 PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**5.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE NORMALIZACIÓN DE USO DEL EUSKERA 2023-2027 EN EL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA.**

Hondarribiko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2023-2027 Plan Estrategikoa onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.
2024ko maiatzaren 9ko Nortasuna Sendotzeko Batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación del Plan Estratégico de Normalización de Uso del Euskera 2023-2027 en el Ayuntamiento de Hondarribia.
Visto el dictamen de la Comisión de Fortalecimiento de la Identidad de 9 de mayo de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 13, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (4) eta EH Bildu (2).

Votos a favor: 13, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (4) y EH Bildu (2).



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

Aurkako botoak: 2, PSE-EE-PSOE.

Votos en contra: 2, PSE-EE-PSOE.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Hondarribiko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2023-2027 Plan Estrategikoa eta hizkuntza irizpideak onartzea.

**PRIMERO.-** Aprobar el Plan Estratégico de Normalización de Uso del Euskera 2023-2027 en el Ayuntamiento de Hondarribia y los respectivos criterios lingüísticos.

**BIGARREN.-**Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea.

**SEGUNDO.-**Comunicar la presente resolución a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

Eta Nortasuna Sendotzeko Batzordetik bosgarren puntuan dakarkigu Hondarribiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko 2023-27 Plan Estrategikoa onartzeko proposamena. Eta Garoari emango diot hitza.

Y de la Comisión Fortalecimiento de la Identidad traemos en el punto quinto la propuesta de aprobación del Plan Estratégico 2023-27 para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Hondarribia. Y le cedo la palabra a Garoa.

**LEKUONA ANDREA:** Eskerrik asko, Igor. Bai, esan duzun bezala, gaur ekartzen duguna da Udalarekin lotutako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, Udalaren Plan Estrategikoa da. Martxoan ekarri genuen Herri mailakoa, Herri Mailan Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa, eta gaur ekartzen duguna da Udalari begirakoa. Zazpigarrena da, azken finean bide bat egin delako, eta orain artean egin dena horri gehitzera dator. Komentatu nahi dudana da, gaur ekartzen duguna, Nortasuna Batzordean zinegotzi guztiei eskaini zitzaiela aukera lehenengo eskutik informazioa jasotzeko, langileekin ere kontrastatu dugula eta bere berri eman zaiela, maiatzaren 9an. Aipatzeko, eta esan dudan bezala, zazpigarren plana da, orduan, lan handia egin da Udala euskalduntzeko, azken urte guzti hauetan, eta horren ondorioz, momentu honetan 10 langiletik 9 gai dira bere zerbitzua euskaraz emateko, ez? Ahokoaz ari naiz, bereziki. Eta 10etik 8ra jaisten gara idatzizkoaz ari garenean. Baina Plan honekin eman nahi duguna da beste salto bat, azkenean euskara ere lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza ere izateko. Euskarak presentzia gehiago izateko Udalaren barruan. Eta iruditzen zait garrantzitsua dela azaltzea zergatik, zergatik urrats hau. Alde batetik da, Eusko Jaurlaritzak eskatzen digu aldiro egin behar dugula, eta bueno, dekretu berria ere badaukagu, guk egin

**LA SRA LEKUONA:** Gracias, Igor. Sí, como has dicho, lo que hoy traemos hoy es el Plan de Normalización del Uso del Euskera vinculado al Ayuntamiento, es el Plan Estratégico del Ayuntamiento. En marzo aportamos el Plan Estratégico para la Promoción del Euskera en la ciudad, y hoy nos centramos en el Ayuntamiento. Es el séptimo, porque al fin y al cabo ya se ha recorrido un camino, y porque éste viene a completar lo que se ha hecho hasta ahora. Lo que quiero comentar, lo que hoy aportamos, es que en la Comisión de Identidad se ofreció a todos/as los/as concejales/as la posibilidad de recibir información de primera mano, que también hemos contrastado con los trabajadores, y que se les ha informado sobre el Plan el 9 de mayo. Como he dicho, es el séptimo plan. Entonces se ha trabajado mucho en euskaldunizar al Ayuntamiento durante todos los últimos años, y eso ha hecho que en este momento 9 de cada 10 trabajadores y trabajadoras puedan dar su servicio en euskera, ¿no? Me refiero especialmente al servicio oral. Pero con este Plan queremos dar un salto más para que el euskera sea también lengua de trabajo y de servicio. Aumentar la presencia del euskera dentro del Ayuntamiento. Y me parece importante explicar el por qué, el por qué de este paso. Por un lado, desde el Gobierno Vasco nos piden que lo hagamos periódicamente y,



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

behar dugula bost urteko Plana nola egingo dugun euskararen presentzia handiagotu gure Udaletan. Orduan, Hondarribiko Udalak ere, horri erantzun behar dio. Baina badago beste puntu bat oso garrantzitsua, eta da SIADECOrekin egin da lanketa hau, eta 2023koa bukatu zutenean diagnostiko bat esan ziguten: zein den Hondarribiko Udalaren errealitatea, eta gaur ekarri nahi ditut hiru datu, pixka bat ulertzeko. Eta lehenengoa zera da: lan bileretan euskara erabiltzen da % 67an, harreman informaletan, langileen artean jaisten da, eta % 64koa da, baina aldiz, beste erakunde publikoekin Udal langileek hitz egiten dutenean, portzentaje hori igotzen da % 78ra. Hau da, Udal mailan egiten den euskara maila handiagotzen da beste Udal batekin, Aldundiarekin edo harremanetan gaudenean. Horrek erakusten diguna da gaitasuna benetan badagoela euskaraz gehiago egiteko. Eta hirugarren arrazoia da UEMAko kide egin garela. Bai jarri nahi dudana da mahai gainean, eta azaldu genuen bezala, UEMA bereziki sortu zen Udalerri euskaldunak…beraien mankomunitatea da, eta gu parte horren gara, eta lehentasuna da euskaraz aritzea, baina gu ez gaude errealitate horretan, gure errealitatea da elebitasuna nagusi daukagula, eta erdara ere nagusi dela. Orduan Plan honetan jasotzen dena da euskarari lehentasuna bai, baina elebitasuna ere baita ere. Zergatik? Azken finean behar dugulako euskaraz ez dakiten Udal langile horien eskubidea bermatu, eta baita Udako zinegotziena. Beraz, UEMAko kide bagara, norabide horretan nahi dugu, baina badakigu nondik abiatzen garen.

bueno, tenemos un nuevo decreto, que establece que hagamos un Plan quinquenal para aumentar la presencia del euskera en nuestros Ayuntamientos. Entonces, el Ayuntamiento de Hondarribia también tiene que responder a ese requerimiento. Pero hay otro punto muy importante, y es que este trabajo se ha hecho con SIADECO; cuando terminaron su estudio del 2023 nos dieron un diagnóstico: cuál es la realidad del Ayuntamiento de Hondarribia. Hoy quiero traer tres datos para entender un poco su situación: Y el primero es el siguiente: en las reuniones de trabajo se utiliza el euskera en un 67%, en las relaciones informales entre el personal, desciende y es del 64%, mientras que cuando el personal del Ayuntamiento habla con otras instituciones públicas este porcentaje sube al 78%. Es decir, el uso del euskera a nivel municipal aumenta cuando estamos en contacto con otro Ayuntamiento, o con la Diputación. Esto nos demuestra que realmente hay capacidad para expresarse más en euskera. Y el tercer motivo es que hemos entrado a formar parte de UEMA. Lo que sí quiero señalar es, como explicamos, que UEMA se creó especialmente para crear una mancomunidad de municipios euskaldunes... y que nosotros/as somos parte de ellos, y que la prioridad es trabajar en euskera. Pero nosotros no estamos en esa realidad, nuestra realidad es que en nuestra ciudad predomina el bilingüismo, y el castellano también. Entonces, en este Plan se recoge la prioridad del euskera, pero también del bilingüismo. ¿Por qué? Porque al fin y al cabo debemos garantizar el derecho de esos/as trabajadores/as municipales que no saben euskera, y también de los/as concejales/as del Ayuntamiento. Por lo tanto, si somos miembros de UEMA queremos ir en esa dirección, pero sabemos de dónde partimos.

Eta nola mundu honetan dena kuantifikatu eta neurtu egin behar den, euskara Plan hau Eusko Jaurlaritzak ere kuantifikatu egiten du, eta egoera bakoitzari zenbaki bat jartzen dio. Eta orduan, zenbaki horren baitan baldin bagoaz 1.000 puntutako eskala batean, orain artean Hondarribiko Udalak zeukan puntuaketa bat zen 578koa. Esan dezakegu 5,7ko puntu bat 10eko eskalan. Eta Plan honekin egin nahi dugun salto hori, jauzi hori, handia da, 814 puntutara iritsi nahi dugulako. Hori da jartzen garen helburua. Badakigu topatuko garela zailtasunekin, eginbeharrekin, baina ikusten

Y como en este mundo hay que cuantificarlo y medirlo todo, el Gobierno Vasco también cuantifica este Plan de euskera y asigna un número a cada situación. Y entonces, en una escala de 1.000 puntos, el Ayuntamiento de Hondarribia tenía hasta ahora una puntuación del 578. Podemos decir un 5,7 en una escala de 10. Y el salto que queremos dar con este Plan es grande, porque queremos llegar a 814 puntos. Ese es el objetivo que nos ponemos. Sabemos que nos vamos a encontrar con dificultades, con trabajo, pero lo que vemos es que para avanzar hay que marcar el nivel



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

duguna da, aurrera jotzeko, pixka bat aurrera ere markatu behar dela, eta bereziki, langileei, esaten genuen bezala, hemen dena ez da paperak bakarrik jasotzea, baizik eta nahi duguna da hori egiterakoan posible izatea, ez? eta orduan, nola egiten dugu hori posible? Aurreikusi dira bereziki hiru ardatz, hiru palanka, esateko. Lehenengoa da lidergoa. Azken finean, Udal arduradun politikoen aldetik, Zerbitzuburuen aldetik, Udal langilegoak bere egitea euskararen presentzia areagotzea Udal mailan. Bigarrena, eta oso garrantzitsua ere da, Jarraipen Batzorde bat egongo dela, azken finean lan honetan jasotzen den hori aztertuko dugu Jarraipen Batzorde horrekin, eta esandakoa, bereziki da: Zein zailtasunekin topatzen gara? Zer egin beharko genuke? Eta horretan UEMAk lagunduko digu asko, zeren beraien lan arloa da, eta horrela jakingo dugu beste herrietan nola egiten duten, eta prozesua errazagoa izateko. Eta gero, egia da, Plan honetan, Plan Estrategikoa dago, baina jasotzen dira ere hizkuntza irizpideak, nola egingo dugun, azken finen bi hizkuntza ofizial dauzkagu, eta orduan jasotzen dena da 20 egoeratan nola jardungo dugun bakoitzean. Zerrenda luzea da, baina diagnostikoa oso ona egina dagoenez aurreko urteetakoa, identifikatu dira 20 horietatik 5 arlo non hor eragiten, hor lana egiten, lehen esandakoa, ez? Puntuaketa horiek lortzeko aukera gehiago ditugun. Eta zeintzuk dira 5 puntu horiek? Alde batetik da herritarrekiko harrera postuetan, hor areagotzea euskaraz egiten dena, bereziki euskaraz hitz egiten duen herritar horri euskaraz erantzutea, zeren momentu honetan hori ez dago ziurtatuta. Bigarrena da, agerraldi instituzionala, Udalak egiten duen…pentsatu egin behar dugula, ze hizkuntzatan egingo dugun, nola egingo dugun, itzulpen zerbitzua behar dugun, zeren azken finean denok ahi dugu eroso egotea, baina euskarak ere bere presentzia izatea, zeren bestela dena, inertziaz, gaztelerara joaten delako; orduan, horren zainketa egitearena. Udalari begira, Udal langileak portzentaje oso handian badaukate gaitasuna euskaraz ere sortzeko beraien dokumentazioa, orduan horretan nahi dena da euskaraz sortzera animatu. Gero, nahi duguna da, Udal barneko idatzizko online hizkuntza ere euskara izatea. Udal agiriak, dokumentazioa…hor euskaraz sortzea, espedientearen lehenengo sorrera horretan. Eta bosgarrena izango zen bereziki, harreman informal horietan…ez dena bilera, baizik eta pasillokoetan, edo astelehenean kontatzen duguna asteburua nola

a conseguir un poco más adelante, y sobre todo en lo que repecta al personal, como decíamos; aquí no se trata de recogerlo en el papel, sino que lo que queremos es posibilitarlo, ¿no?¿Y cómo lo posibilitamos? Se prevén especialmente tres ejes, tres palancas. El liderazgo es el primero. En definitiva, que incentivado por los responsables políticos municipales, y por los jefes de servicio, el personal municipal asuma el incremento de la presencia del euskera en el ámbito municipal. El segundo, y muy importante, es que exista una Comisión de Seguimiento, con la que analizaremos, en definitiva, lo que se recoge en este trabajo, que, como se ha dicho, se resume en estas cuestiones: ¿Con qué dificultades nos encontramos? ¿Qué deberíamos hacer? Y en eso UEMA nos va a ayudar mucho, porque es su área de trabajo y así sabremos cómo actúan en otras localidades para facilitar el proceso. Y luego, es cierto que este Plan es un Plan Estratégico, pero en el Plan también se recogen los criterios lingüísticos, cómo lo vamos a materializar. Al fin y al cabo, tenemos dos lenguas oficiales… y entonces lo que se recoge es cómo vamos a actuar en 20 situaciones diferentes. El listado es extenso, pero dado que el diagnóstico realizado en años anteriores ha sido muy bueno, se han identificado 5 de las 20 áreas en las que, incidiendo en ellas, en las que trabajando sobre ellas… lo comentado anteriormente, tenemos más posibilidades de obtener estas puntuaciones. Por un lado, en los puestos de atención a la ciudadanía, incrementar en ellos el uso del euskera, especialmente en la atención en euskera a la ciudadanía que habla euskera, lo cual en este momento no está garantizado. En segundo lugar, en la comparecencia institucional, la que hace el Ayuntamiento... debemos reflexionar en qué idioma nos vamos a dirigir, en cómo lo vamos a hacer, en si necesitamos un servicio de traducción, porque al fin y al cabo todos/as tenemos que estar cómodos/as, pero el euskera también tiene que tener su presencia, porque si no, todo, por inercia, tiende al castellano; entonces, tener cuidado en ese tema. De cara al Ayuntamiento, si el personal del Ayuntamiento tiene un alto porcentaje de capacidad para generar su documentación también en euskera, entonces lo que se quiere es que se anime a crear en euskera. Luego, queremos que la lengua escrita on-line dentro del Ayuntamiento sea también el euskera. La creación de documentos

ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

joan zaigun, bada…hor ere, euskarak, aukeran, presentzia gehiago izatea. Orduan, hau da Udalaren Plan Estrategikoa, 23tik 27ra aurreikusten dena, bide bat markatzen diguna, eta bereziki da jarraipena egingo dioguna, trabak eta zailtasunak zeintzuk diren identifikatzeko eta denen artean beraiei aurre egiteko. Eta hau da gaur Euskara Sailetik ekartzen duguna.

municipales, documentación... en euskera, también en la incoación de expedientes. Y el quinto, sería especialmente, que en esas relaciones informales... que no son reuniones, sino que lo que se cuenta es el lunes cómo nos ha ido el fin de semana... que también ahí tenga el euskera, a ser posible, más presencia. Entonces, éste sería el Plan Estratégico del Ayuntamiento previsto para los años 23-27, que nos marca un camino, del cual haremos un seguimiento para identificar cuáles son los obstáculos y las dificultades y para afrontarlos entre todos/as. Y esto es lo que hoy traemos del Departamento de Euskera.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Taldeek aipamenik egiteko asmorik? Bai? EAJren txanda

**EL SR ALCALDE:** Gracias. ¿Quieren señalar algo los grupos? ¿Sí? ¿Turno del PNV?

**CARRION JAUNA:** Mila esker, Garoa. Gure aldetik erabat ados, da jarraipen bat, 7. Plana, aipatu duzun moduan, horrek nahi du esan euskaraz ibiltzen garen denak lan hizkuntza modua, nire ustez, harremanetan ere bai, nahiko portzentaje altua, ahal da igo, baina ez dugu ahaztu behar hizkuntza eskubideak bermatu behar direla. Bermatzen ditu, baita ere, Plan honek, baina ez ahaztu hori, zeren badaude herritar batzuk zoritxarrez euskaraz ez dakitenak, eta nahiko nuke ez izatea….lehen hitza bai euskaraz izan dadin, baina hizkuntza eskubideak bermatu beharko ditugu. Besterik ez, bestela ondo ikusten dugu Plan guzti hori.

**EL SR CARRION:** Gracias, Garoa. Por nuestra parte totalmente de acuerdo, es una continuación, se trata del 7º plan, tal y como has mencionado; eso quiere decir que es un porcentaje bastante alto el de todos/as los/as que trabajamos en euskera, yo creo que también en las relaciones; se puede incrementar, pero no debemos olvidar que hay que garantizar los derechos lingüísticos. Este Plan también los garantiza, pero no olvidemos que hay ciudadanos/as que desgraciadamente no saben euskera y me gustaría que no fuera... está bien que el saludo de entrada sea en euskera, pero tendremos que garantizar los derechos lingüísticos. Nada más, en el resto vemos adecuado el Plan.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Alderdi Sozialista…

**EL SR ALCALDE:** Gracias. El Partido Socialista...

**ODRIOZOLA ANDREA:** Bai. Gai hau jorratu zen Batzordean aipatu nuen bezala, Alderdi Sozialista ezin gara ados egon Plan honetako Irizpideen atalean jasotako proposamen batzuekin; berriz diot, Irizpideen atalean, eta proposamen batzuetan. Baliteke irizpideak UEMAren gomendioen arabera idatzita daudelako izatea; guk ez genuen UEMAren aldeko botoa eman, baina beste gai batzuengatik izan daiteke. Zehaztu egingo dut, eta honako hau da gaia: Irizpideak idazten diren testuan, behin eta berriz errepikatzen da argitalpenak, txostenak, egutegiak, iragarkiak, nominak, hitzarmenak, abisuak... euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatz daitezkeela. Horrek, euskaraz bakarrik idazteko bidea ematen du. Gure proposamena da irizpide horien atalak idazterakoan

**LA SRA ODRIOZOLA:** Sí. Tal y como yo ya mencioné en la Comisión correspondiente en la que se abordó este tema, desde el Partido Socialista no podemos estar de acuerdo con algunas de las propuestas recogidas en el apartado de Criterios de este Plan, insisto, en el apartado de Criterios, y algunas de las propuestas. Puede ser porque los criterios están redactados en función de las recomendaciones de UEMA, nosotros no votamos a favor de UEMA, pero puede ser por otros temas. Voy a concretar, y el tema es el siguiente: En el texto en el que se redactan los criterios, se repite una y otra vez que las publicaciones, los informes, los calendarios, los anuncios, las nóminas, los convenios, los avisos…pueden ir redactados en euskera o en euskera y castellano. Esto da vía libre



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

honako hau jarraitzea: euskaraz eta gaztelaniaz, euskara lehenetsiz. Ez aurreko esaldia, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz. Euskaraz eta gaztelaniaz, euskara lehenetsiz. Izan ere, gure ustez, UEMAk proposatzen duen idazketarekin, irizpide horiek jasotzen dituen idazketarekin, euskara ondo ulertzen ez duten udal-langileen eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen ez dituen testua dugu.

a que sólo se redacte en euskera. Nuestra propuesta es que en la redacción de los diferentes apartados de estos criterios se siga lo siguiente: en euskera y castellano, priorizando el euskera. No la anterior frase, en euskera o en euskera y castellano. En euskera y castellano priorizando el euskera. El motivo es que nos parece que con la redacción que se propone desde UEMA, y se recogen estos criterios, nos encontramos con un texto nada garantista de los derechos lingüísticos de los ciudadanos y trabajadores municipales que no entiendan bien el euskera.

Alderdi Sozialistaren apustua da euskara lehenestea, jendearentzako arreta hasieran euskaraz egitea, eta gero gaztelaniara pasatzea, pertsonak ulertzen ez badu, udalaren web-orria euskaraz irekitzea, eta gero norbaitek euskaraz ulertzen ez badu klik egitea eta gaztelaniara pasatzea; euskarari lehentasuna ematea argitalpen guztietan, lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz, edo letra lodiz euskaraz eta hurrengoa gaztelaniaz... eta, horrela, irizpideetan jasotzen diren eta, gainera, oso begi onez ikusten ditugun neurri asko eta asko. Baina ezin dugu aipatu dugun idazketa hori onartu. Komunikazio hori guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idaztea. Ez da bermatzailea, eta, gainera, babesa ematen ari gara une jakin batean edonork erabakia har dezan, bere usteak horiek direlako, Aita Santua baino papistagoa delako, euskara baino ez dela erabiliko. Berriro diogu, honela idatzi behar da: euskaraz eta gaztelaniaz, euskara lehenetsiz. Normalizazioaren helburua bi hizkuntzen erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sortzea izango litzateke, herritarren eskubideei dagokienez. Berdintasun osoa, gaur egun eta irizpide horiek onartuta, dauden bezala idatzita, ez dena betetzen Udal honetan, idazketa ez baita hizkuntza-eskubideen bermatzailea, bakoitzak erabaki edo interpretatu nahi duenera irekita baitago, eta herritarren informazio-eskubidearen kalterako izan baitaiteke. Ez gaude Planaren aurka, bai, ordea, irizpideen idazketaren aurka.

Desde el Partido Socialista apostamos porque se priorice el euskera, que la atención al público se haga inicialmente en euskera, y se pase al castellano luego si la persona no lo entiende, que la página web municipal se abra de inicio en euskera, y luego si alguien no lo entiende de al klik y se pase al castellano, que se priorice el euskera en todas las publicaciones, poniendo primero el texto en euskera y después en castellano, o en negrita en euskera y lo siguiente en castellano….y así un largo etcétera de medidas que se recogen en los criterios y que vemos además con muy buenos ojos. Pero no podemos pasar por esa redacción que he mencionado. Toda esa comunicación redactada en euskera o en euskera y castellano. No es garantista, y además estamos dando cobertura a que en un momento dado decida, porque sus convicciones son esas, porque es más papista que el Papa, que sólo se va a utilizar el euskera. Insistimos, la redacción tiene que ser la siguiente: en euskera y castellano, priorizando el euskera. El objetivo de la normalización sería crear las condiciones que permitan llegar a la igualdad plena de las dos lenguas en cuanto a los derechos de los ciudadanos y las ciudadanas. Igualdad plena, que en el momento actual y con la aprobación de estos criterios, redactados tal y como lo están, no lo es en la práctica en este Ayuntamiento, pues la redacción no es garantista de los derechos lingüísticos, está abierta a lo que cada cual quiera decidir o interpretar, y puede ir en detrimento del derecho de la información de los ciudadanos. No estamos en contra del Plan, sí de la redacción de los criterios.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, Noemí. Zuzenketatxo bat, bakarrik. Idazketa hau SIADECOk egindakoa da, Plangintza hau

**EL SR ALCALDE:** Gracias, Noemí. Sólo una pequeña corrección. Esta redacción ha sido realizada por SIADECO, esta Planificación ha sido



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

SIADECOk egindakoa da, Garoak lehen aipatu duen bezala, eta ez UEMAk. UEMA soilik izan da aholkularitzan lagundu duen eragile bat, baina SIADECOren bitartez landutako Plan Estrategiko bat dela gogoratu nahi dut, eta ongo baderitzozue bosgarren puntu honen bozketara pasako gara. Hondarribiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko 2023-27 Plan Estrategikoa onartzeko proposamenaren aldeko bozkak?

realizada por SIADECO, tal y como ha mencionado anteriormente Garoa, y no por UEMA. UEMA sólo ha sido un agente que ha colaborado en el asesoramiento, pero quiero recordar que se trata de un Plan Estratégico elaborado a través de SIADECO, y si os parece bien, pasaremos a la votación de este quinto punto. ¿Votos a favor de la propuesta de aprobación del Plan Estratégico 2023-27 para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Hondarribia?

**ODRIOZOLA ANDREA:** Barkatu, baina SIADECOren dokumentuaren testuan bertan irakurriko dut, barkatu, honako hau jartzen du: Hondarribiko Udalaren hizkuntz irizpideak zehazteko UEMAK Udalentzat egindako hizkuntz irizpide berriak hartu dira kontuan". Nahiz eta SIADECOk idatzi duen, hizkuntz irizpideak UEMArenak dira, edo hala ulertzen dut nik.

**LA SRA ODRIOZOLA:** Perdona, pero en el propio texto del documento de SIADECO, lo voy a leer, perdón, "los criterios lingüísticos elaborados por UEMA para los Ayuntamientos han sido tenidos en cuenta para definir los nuevos criterios lingüísticos del Ayuntamiento de Hondarribia". Aunque lo haya redactado SIADECO, los criterios lingüísticos son los de UEMA, o así lo entiendo yo.

**ALKATE JAUNA:** Bai, aholkulari bezala eragile bat kontuan hartu da UEMA, baina dokumentuaren idazketa, pentsatzen dut lehen aditzera eman…edo horrela ulertu dut nik, behintzat, UEMAk idatzitako dokumentua dela, zuzenketa bezala SIADECOk idatzitako dokumentua dela, eta UEMA izan dela aholkulari bat ibilbide honetan. Soilik, argitzeko, zeren uste dut argiketa hori ere inportantea dela. Beraz, argiketa hauek eginda, bozkatzera pasako gara, Plan Estrategikoaren…Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2023-27 Plan Estrategikoa onartzezko aldeko bozkak? Kontrakoak? Gehiengoz onartua, beraz.

**EL SR ALCALDE:** Sí, como asesor se ha tenido en cuenta a un agente, a UEMA, pero la redacción del documento, creo que ya lo he dicho... o así lo entiendo yo, al menos, que es un documento redactado por UEMA, que la corrección ha sido redactada por SIADECO, y que UEMA ha sido un asesor en este recorrido. Únicamente para aclarar, porque creo que también es importante esta aclaración. Por lo tanto, realizadas estas aclaraciones, ¿pasamos a votar la aprobación del Plan Estratégico... Plan Estratégico 2023-27 de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento? ¿Votos a favor? ¿En contra? Aprobado por mayoría.

**GOBERNU ORGANOEN KONTROLA**

**CONTROL DE ÓRGANOS DE GOBIERNO**

**6.-2024KO 1273. ZENBAKITIK 1537. ZENBAKIRA BITARTEKO ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

**6.-DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA NÚMEROS DEL 1273 AL 1537 DE 2024.**

2024ko apirilaren 22ko 1273. zenbakitik maiatzaren 23ko 1537. zenbakira bitarteko dekretuen berri eman ondoren, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Dada cuenta de los Decretos de Alcaldía del nº 1273 de 22 de abril al nº 1537 de 23 de mayo de 2024, el Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

Eta pasako gara Gobernu Organoen Kontrolari

Y pasamos al sexto punto de Control de Órganos



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

dagokion seigarren puntura. 2024ko 1.273 zenbakitik 1.537 zenbakira bitarteko Alkate Dekretuen berri emateari dagokionean. Norbaitek galderarik badu?

de Gobierno. En relación con la comunicación de los Decretos de Alcaldía nº 1.273 a 1.537 de 2024. ¿Alguien tiene alguna pregunta?

**SILANES JAUNA:** Bai, arratsalde on, guztioi, Galdera bat daukagu 1.355. dekretuaren inguruan. Ez dakit jakingo duzuen buruz, uste dut Bozeramaile Bileran aurreratu zela galdetuko genuela honen inguruan, hau da, asfaltatze lanak egin direla Amuten, Villa Telleria ondoan, galdera erraza da: Ea lanak bukatuta dauden, ala ez.

**EL SR SILANES:** Sí, buenas tardes, a todos/as, tenemos una pregunta sobre el decreto 1.355. No sé si lo que sabréis de memoria, creo que en la Junta de Portavoces se adelantó que preguntaríamos sobre este tema, si se han hecho labores de asfaltado en Amute junto a Villa Tellería; la pregunta es sencilla: A ver si los trabajos están finalizados.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, eskerrak aurreratu zela, bestela igual ez nizuke erantzungo orain, baina bai. Erantzuna da…lanak ez daude bukatuta, izan ere, oraintxe bertan…egia da asfaltadoa egina dago, baina falta da konektatzea Kosta kaletik datozen txirrinda horiek Bidegorrira. Eta gainera, Villa Telleria orain ere obratan ari direnez, hor, garajera sarrera berri bat agertuko da, orduan bidegorria bera ere modifikatu egingo denez, itxoingo dugu….de hecho orain hasiko dira jada espaloiaren obra horrekin, orduan, hori egiterakoan, konektatuko da, eta orduan bai bukatuta egongo da.

**LA SRA URTIZBERA:** Sí, menos mal que se adelantó en la Junta, de lo contrario igual no podría responder ahora, pero sí. La respuesta es que... los trabajos no están terminados, porque ahora mismo... es cierto que el asfaltado está hecho, pero falta conectar las bicicletas que vienen de la calle Kosta al Bidegorri. Y además, como Villa Tellería sigue en obras, allí aparecerá un nuevo acceso al garaje, y entonces el bidegorri también va a ser modificado, por lo que esperaremos.... de hecho, ahora ya van a empezar con esa obra de la acera. Entonces al hacerlo se conectará, y, entonces, ya estará terminado.

**SILANES JAUNA:** Oso ondo. Gogoan duzue Mugikortasun Mahaian landu genuela bukaera hori, eta eskerrik asko.

**EL SR SILANES:** Muy bien. Como recordáis en la Mesa de Movilidad hablamos de ese remate, y gracias.

**URTIZBEREA ANDREA:** Zuri, zuri.

**LA SRA URTIZBEREA:** A ti, a ti.

**ALKATE JAUNA:** Beste dekreturik? Zerbait argitzeko?

**EL SR ALCALDE:** ¿Algún otro Decreto? ¿Algo por aclarar?

**7.-ERREGU ETA GALDERAK.**

**7.-RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Interbentzioak:

Intervenciones:

**ALKATE JAUNA:** Pasako gara zazpigarren puntura, beraz, Erregu eta Galderei dagokienean, Alderdi Sozialistatik idatzizko galdera bat pasatu ziguten, zuei proposatuko dizuet lehenengo galdera hori egitea.

**EL SR ALCALDE:** Pasaremos al séptimo punto, y así, en los Ruegos y Preguntas, desde el Partido Socialista se nos pasó una pregunta por escrito, que os propondré a vosotros exponer.

**ALVAREZ JAUNA:** Nik uste dut pasatu dugula, eta galdera hau da: Gizarte Zerbitzuen eraikinaren inguruan da, gaia proiektua da: proiektuaren

**EL SR ALVAREZ:** …Yo creo que la pasamos, y la pregunta es la siguiente: Es en torno al edificio de los Servicios Sociales, que está el tema del

ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

idazketa bat egon zen, proiektu saiakera bat. Orduan, galdera da ea lokalaren espazioen banaketa Gizarte Zerbitzuen Sailean adostuta dagoen. Eta ea kontuan hartzen den zerbitzu berrien banaketa, zerbitzu-zorroaren arabera. Hau da, duela gutxi ikusi dut Udalak... lizitazio bat dagoela, psikologoen kabinete baten gaiari buruzko plegu bat dagoela. Akordio bat, lizitazio bat ezarriko da, psikologo bat eta erdi kontratatzeko plegu bat ezarriko da, eta, ondoren, bi laguntzaile edo nolabait laguntzen duten pertsonak kontratatuko dira.

proyecto, hubo una redacción de proyecto, el intento de proyecto, entonces lo que se pregunta es si están consensuados las distribuciones de los espacios del local en el departamento de Servicios Sociales. Y si se tiene presente la distribución con los nuevos servicios en base a la cartera de servicios. Es decir, hace poco he visto que el Ayuntamiento…hay una licitación, hay un pliego sobre el tema de un gabinete de sicólogos. Se va a establecer un acuerdo, una licitación, un pliego para contratar a un sicólogo y medio, y luego dos laguntzailes o personas que de alguna forma acompañen.

Eta, gero, proiektu bat ere badago, ZABALDUZ proiektua, lankidetza-proiektu bat, hor dagoena: ZABALDUZ proiektua; nolabait, Gizarte Zerbitzuetan sartuko diren bi elementu izango dira. Nik egiten dudan galdera honako hau da: nola edo hala kontuan hartzen den proiektuen biderkatze hori ezartzen den proiekturako, izan ere bere garaian bazegoen.... adostu den galdetzen dudanean… bere garaian galdetu dut, eta esan didate oraindik ez dagoela mundu osoarekin adostuta gaia, Gizarte Zerbitzuekin ari naiz hitz egiten, eraikinaren heren bat Gizarte Zerbitzuetakoak ez ziren beste gai batzuetara bideratu behar zelako, nolabait ere hor sartzen baitziren. Hau da, nik lehenengo eta behin, adostuak ote dauden galdetzen dut; eta, bigarrenik, zerbitzu berri horiek nolabait kontuan hartzen ote diren, nolabait osatuko dituzten espazio horietan kontuan hartuko ote diren. Eta oso argi diot, nik uste dut hobea dela, nolabait ondo egindako gauza bat egitea, hau da, Gizarte Zerbitzuak, funtsezko elementua direnak, non proiektu batzuk dauden, interesgarriak, batez ere psikologoen alderdiaren gaia, kontratuan haientzako espazio batez ere hitz egiten baita... eta, gero, ZABALDUZen gaia dago, hirugarren adinekoentzat, eta nolabait ere kontuan hartu edo bateragarri egin beharko da, nahiz eta kanpoko enpresa bat izan, kasu honetan, edo kanpoko GKE bat, ZABALDUZen kasuan, GKE bat, nolabait lekuak behar dituena, hau da,... nik uste dut gauza bat egiten dugunean, nolabait aurrikusten dela. Nola dago gai hori?

Y luego también, hay un proyecto, que es el proyecto ZABALDUZ, que es un proyecto cooperativo, que está ahí, está el proyecto ZABALDUZ, que también, de alguna forma, son dos cuestiones que van a ser elementos que van a incorporarse a los Servicios Sociales. Yo la pregunta que hago es, la cuestión está, es que si de alguna forma se tiene en cuenta esta ampliación de los proyectos para el proyecto que de alguna forma se establece, porque en su día había….cuando pregunto si ha consensuado, en su día he preguntado, y me han dicho que todavía no está el tema acordado con todo el mundo, me refiero con los Servicios Sociales, porque se debía destinar un tercio del edificio a otros temas que no fueran de los Servicios Sociales, que de alguna forma entraban ahí. Es decir, yo lo que pregunto primero es si están consensuados, y segundo, si de alguna forma se contemplan estos nuevos servicios que se van a plantear si se contemplan en esos espacios, que de alguna forma van a conformar. Y lo digo muy claro, porque yo creo que es mejor, si de alguna forma tenemos que hacer una cosa, bien hecha, como son los Servicios Sociales, que son un elemento fundamental, en el cual hay una serie de proyectos, interesantes, sobre todo el tema de la parte de los sicólogos, que en el contrato se habla incluso de un espacio para ellos…y luego está el tema de ZABALDUZ, para la gente de la 3ª Edad, que también de alguna forma habrá que contabilizar o compatibilizar, aunque sea una empresa externa, en este caso, o una ONG externa, es el caso de ZABALDUZ, una ONG, que de alguna forma requieren sitios, en el sentido de que…yo lo que creo es que una vez que hagamos una cosa, de alguna forma sí se contempla. ¿Cómo está el tema ese?

ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

**URTIZBEREA ANDREA:** Alkateari ondo iruditzen bazaizu, nik egingo dut, eta gero Josuri ere pasako diot hitza, bale? Nik Hirigintza Sailetik esango dizut gu sartu ginenetik bilera egin zela Gizarte Zerbitzuetako teknikariarekin, Gazteriakoarekin orduan ez, zeren orduan juxtu jubilatu berria zegoen, proiektua idazten ari ziren arkitekto taldearekin, eta Hirigintzako teknikariarekin, beraz proiektu basikoaren gainean, jada diseinuaren gainean, joan ziren hausnarketak egiten eta hainbat aldaketa jasotzen. Jakin badakit ere, lehendik holako bilera komun bat ez, baina idazketan ari ziren arkitekto taldeak, Gizarte Zerbitzuetako eta Gazteria teknikariarekin eta bilduta izan zirela eta jaso zituztela haien beharrak, baina esaten dizut, gu gaudenetik bilera amankomuna egin da, eta beraz exekuzio proiektuan bilera horretatik ateratako hainbat moldaketa jaso dira. Gainontzekoa Josuri utziko diot.

**LA SRA URTIZBEREA:** Si al alcalde le parece bien, respondo yo y luego le paso la palabra a Josu, ¿vale? Yo desde el Departamento de Urbanismo te diré que desde que entramos nosotros/as, se mantuvo una reunión con el Técnico de Servicios Sociales, con la de Juventud no, porque entonces estaba recién jubilada, con el equipo de arquitectos que estaban redactando el proyecto, y con la Técnica de Urbanismo, por lo tanto, se fueron haciendo reflexiones y recogiendo algunos cambios sobre el proyecto básico, ya sobre el diseño.Sé también que anteriormente no había habido una reunión común, pero que el equipo de arquitectos/as redactor, mantuvo una reunión con el técnico de Servicios Sociales y y con la técnica de Juventud, y recogieron sus necesidades…. pero te diré que desde que estamos nosotros/as se ha celebrado una reunión común, por lo que en el proyecto de ejecución se han recogido una serie de modificaciones extraídas de dicha reunión. Dejo el resto a Josu

**PEÑA JAUNA:** Kaixo, Iosu. Eskerrik asko. Nik ere oso argi esaten dizut, baietz, elkartu garela gu gaudenetik, eta Estitxuk oso ongi esan duen moduan, bertako teknikariekin, eta argi esaten dizut ere, ez bakarrik teknikariekin, zeren uste dut oso garrantzitsua dela…askotan langileez ahazten gara, eta hemen bilera bat eduki nuen bai arduradun eta gizarte langile guztiekin, eta etorkizunean batzuen lantoki eremua izango zenez, oso egokia ikusten nuen beraiekin ere hori partekatzea, ez zaidalako batere ondo iruditzen arduradunak lekua zein den jakitea baina bertan lan egingo dutenek ez. Orduan, guztiekin, nik behintzat planoak eduki nituenetik, lehenengo egunetik beraiekin bildu nintzen, eta partekatu nuen. Gero aipatu duzu bi gauza, bat da Gizarte Zerbitzuen Legeak exijitzen digun zerbitzu bat, orain kontrataziora atera dena, behin baino gehiagotan areto honetan hitz egin dut honen inguruan, eta da babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoei arreta siko-sozial bat emateko, orain Puntalean daukagun eraikin txiki batera joateko asmoa daukagu, ez daukagulako beste espaziorik, bertan Hirigintzakoak egon ziren espazioaz ari naiz, eta gero kontuan hartu da ere bai eta hau Estitxuk aipatu duen azken lantalde bilera horretan, proiektua buruan genuenez ere aurreikusten da, behin Muliateko obra bukatzen denean, zerbitzu hau, karterak exijitzen digun zerbitzu hau bertara ere joatea. Azkenik aipatu duzu

**EL SR PEÑA:** Hola, Iosu. Gracias. Yo también te digo muy claro, que sí, que nos hemos reunido desde que estamos nosotros/as, y como bien ha dicho Estitxu, con los/as técnicos correspondientes; y te lo digo claramente, no sólo con los/as técnicos, porque creo que es muy importante... muchas veces nos olvidamos de los/as trabajadores/as y aquí tuve una reunión con todos los/as responsables y trabajadores/as sociales, ya que como en el futuro sería el ámbito de trabajo de ellos/as, veía muy oportuno compartirlo con ellos/as, porque no me parece muy bien que el responsable tenga información sobre el lugar y los que van a trabajar allí no. Entonces, hice una reunión con todos/as desde el primer día, por lo menos desde que yo tuve los planos, y lo compartí. Luego has mencionado dos cosas, una es un servicio que nos exige la Ley de Servicios Sociales y que ahora ha salido a contratación, sobre la que he hablado en varias ocasiones en esta sala… y es para dar una atención psico-social a los menores en situación de desprotección. Ahora tenemos la intención de ir a un pequeño edificio que tenemos en el Puntal, porque no tenemos otro espacio, me refiero al espacio en el que estuvieron los/as de Urbanismo. Y luego también se ha tenido en cuenta y de esto se habló en esta última reunión de grupo de trabajo que ha mencionado Estitxu, que ya teníamos previsto que, una vez finalizada la



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

ZABALDUZ, ZABALDUZ kooperatiba bat da, argitzeko esaten dizut, eta Batzordean ere, izan genuen Batzorde informatiboan aipatu nuen ZABALDUZetik etorriko diren teknikariak ez direla betirako hemen egongo, baizik eta aurreikusten da bi urtez pasako dutela Hondarribian, gero helburua baita herria eragitea eta herria izatea ZABALDUZekoek erakutsiko diguten lan hau egingo dugunak. Orduan, ez dakit noiz bukatuko diren zehazki Muliateko obrak, baina espero dugu bi urte baino lehenago bukatzea, baina ZABALDUZekoen helburua ez da hor gelditzea, baizik eta herria eragitea. Eskerrik asko.

obra de Muliate, este servicio que nos exige la cartera también iría allí. Por último, haces referencia a ZABALDUZ; ZABALDUZ es una cooperativa, te lo aclaro, en la Comisión informativa que tuvimos también lo comenté, que los/as técnicos/as que vengan de ZABALDUZ no van a estar para siempre aquí, sino que se prevé que pasen dos años en Hondarribia, porque luego el objetivo es que sea la ciudad quien incida y sea quien haga este trabajo que nos enseñen los/as de ZABALDUZ. Entonces, no sé cuándo van a terminar exactamente las obras de Muliate, pero esperamos que termine en un máximo de dos años. De todos modos el objetivo de ZABALDUZ no es quedarse ahí, sino sea la ciudad quien incida. Gracias.

**ALKATE JAUNA**.- Beste galderarik edo? bakarrik idatzizkoa jaso dugu…
Bota.

**EL SR ALCALDE:** ¿Alguna otra pregunta? Sólo hemos recibido el escrito.
Adelante.

**SERRANO ANDREA:** Kaixo, arratsalde on. Inprobisazioa daukagu, eta ezin bada gaur erantzun hurrengo Plenorako uzten ditugu, baina bai hainbat gai ekarri nahi genituela gaurkoan. Lehenengoa Hondarribia Jazz jaialdiaren inguruan da, joan den urteko uztailean bigarren edizioa ospatu zen, uste dugu bigarren edizioa izateko arrakastatsua izan zela, publikoan sentsazio onak utzi zituen, eta lau egunetan zehar herrian barrena hainbat jarduera izan genituen, musika proposamen oso ezberdinekin, disfrutatu ahal izateko. Jaialdi oparoa zen, baina aldi berean tamaina aldetik jasangarria, formatu txikikoa, eta hainbat kaletan zehar ospatzen ziren kontzertuak. Badakigu faktore honek garrantzi handia daukala gaur egun ere, eta Itsas Etxeko saioez gain kontzertu eta eszenatoki txikiz josi zituen herriko kaleak. Joan den urteko edizioaren balantzea ona izan zela ikusi genuen, eta harriduraz ikusiko genuke beste ezer ez dagoen bitartean, behintzat jaialdi honi ez jarraipenik ematea. Are gehiago, kontuan izanda aurreko Udal Gobernuarekin martxan jarritako beste egitasmo batzuk jarraitzeko aukera izan dutela, adibidez Phenomenak, eta Amua Jaialdiak ere, atzo oso berri on bat eman ziguna. Beraz, maiatzaren bukaeran gauden honetan eta momentuz honen berririk ez dugunez, gure galdera da, aurten Hondarribian Jazz jaialdiaren hirugarren ediziorik izango da? Edo antzeko zerbait planteatzen da tarte hori betetzeko?

**LA SRA SERRANO:** Hola, buenas tardes. Se trata de una improvisación, y si no se puede responder hoy los dejamos para el siguiente Pleno, pero sí que queríamos traer una serie de temas. El primero gira en torno al festival Hondarribia Jazz, que se celebró en julio del año pasado en su segunda edición; creemos que fue un éxito para ser la segunda edición, dejó buenas sensaciones en el público y durante cuatro días tuvimos actividades por la ciudad con propuestas musicales muy diferentes para poder disfrutar. Fue un festival con una oferta abundante, pero a la vez sostenible en tamaño, de pequeño formato, en el que se celebraban conciertos a lo largo de varias calles. Somos conscientes de la importancia de este factor en la actualidad, que además de las actuaciones en Itsas Etxea, llenó las calles de la ciudad con pequeños conciertos y escenarios. Vimos que el balance de la edición del año pasado fue bueno y veríamos con sorpresa que mientras no haya nada más, al menos no se le diera continuidad a este festival. Y más, teniendo en cuenta que se ha podido continuar con otros proyectos puestos en marcha con el anterior Gobierno Municipal, como Phenomena, o el Festival Amua, que ayer nos dio una muy buena noticia. Por lo tanto, en este momento, a finales de mayo, en el que carecemos de noticias al respecto,, nuestra pregunta es, ¿este año en Hondarribia habrá una tercera edición del festival Jazz? ¿O se plantea algo parecido para



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

llenar ese intervalo?

**ALKATE JAUNA:** Bueno, inprobisatuz, zuk esan duzun bezala, edukiko bagenu erantzun zehatzago bat emateko aukera edukiko genuke. Aipatu duzu "Hondarribian Jazz"en balorazioa baikorra zela, seguru aski jendearen balorazioan oinarritzen baldin bagara, bai, orain, Udal prozeduren balorazioa baikorra denik esatea uste dut ez zuek eta ez guk ezin dugula esan balorazioa baikorra zenik, izan ere jasotzen baitugu eta urteko likidazio txostenetan eta kontuen txostenetan eta behin eta berriro bigarrenean atera zen, baina lehenengoan ere atera zen kontratu txiki errepikakorren bitartez ezin direla horrelako jaialdiak antolatu. Beraz, aurten ez da hirugarren "Hondarribian Jazz" saiorik antolatuko, baina bai antolatuko da asteburu horretan, eta horretan lanean gaude, hainbat kontzertu egikaritzeko lanketa bat.

**EL SR ALCALDE:** Bueno, improvisando, como bien has dicho, si tuviéramos la oportunidad de dar una respuesta más concreta, la daríamos. Comentas que la valoración de "Hondarribian Jazz" ha sido positiva; seguramente si nos basamos en la valoración de la gente, sí; ahora, creo que ni vosotros ni nosotros podemos decir que la valoración desde el punto de vista del procedimiento municipal sea positiva, porque así lo recogemos en los informes de liquidación y cuentas anuales y salió una y otra vez respecto al segundo festival, pero en lo referente al primero también salió, que los contratos menores repetitivos no permiten organizar este tipo de festivales. Por lo tanto, este año no se va a organizar una tercera sesión " Hondarribian Jazz", pero sí se van a organizar ese fin de semana, y estamos trabajando en ello, varios conciertos.

**SERRANO ANDREA:** Eskerrik asko. Beste galdera bat: "Garai batean Alde Zaharra lasaia zena, lehen tabernak eta kofradiak baino ez zituena, orain souvenir-dendaz, ingelesezko menuez eta New Yorkeko irudia duten kafetegiez josita dago". Pentsa genezake Salou edo Magaluf hiriei buruz ari garela, baina duela egun batzuk Udal Gobernuko kide bati Hondarribiko turismoari buruz egindako elkarrizketa bat entzun genuen, turismoak Espainiako estatuan izandako eraginaren testuinguru batean, hain zuzen ere Magaluf edo Salouren ereduak (bi adibide aipatzeagatik) modu negatiboan aipagarriak diren testuinguruan. Gobernu talde honek La Sexta kateako erreportajean parte hartuta Hondarribia eremu horretan kokatzen lagundu du. Hondarribia Magalufen zaku berean. Gure lehenengo galdera da ea Gobernu Taldea erreportaje horretan Hondarribiaz saldu den irudiarekin ados dagoen, eta zein asmo duen jarrera horrekin. Eta bigarren galdera oinarrituago dago merkataritzan. Izan ere, Hondarribiko merkataritza sektoreak urteak daramatza Hondarribiko Udalaren laguntzarekin kalitatezko merkataritza sektoreedun herri gisa kokatzeko lanean, boutique esklusiboak dituen hiri gisa, esklusibitatea izaera propioa eta nortasundun ezaugarri gisa ulertuta. Zein onura ekar diezaioke merkataritza sektoreari Espainiako estatuaren mailan Hondarribia merkataritza kale eta souvenir dendaz jositako herria dela zabaltzeak?

**LA SRA SERRANO:** Gracias. Otra pregunta: "Su tranquilo casco viejo, en el que antes tan sólo había tabernas y cofradías, ahora se ha convertido en una atestada calle comercial repleta de tiendas de souvenirs, menús en inglés, y con cafeterías de inspiración neoyorkina". Podría parecer que hablamos de Salou, o de Magaluf, pero hace unos días pudimos leer y escuchar una entrevista a un miembro de este Gobierno Municipal hablando sobre el turismo en Hondarribia, en un contexto del impacto del turismo en el estado español, donde suelen destacar negativamente los modelos de Magaluf o Salou, por poner dos ejemplos. Este Equipo de Gobierno ha contribuido con su participación en el reportaje del canal de la Sexta a situar a Hondarribia en ese espacio. Hondarribia en el mismo saco que Magaluf. Nuestra primera pregunta es si el Gobierno Municipal está de acuerdo con la imagen que han tratado de vender de Hondarribia en ese reportaje, y qué pretende conseguir con ese posicionamiento. Y la segunda pregunta se centra más en el comercio. Y es que el sector comercial de Hondarribia lleva años trabajando con el apoyo del Ayuntamiento también, para posicionarse como una localidad con un sector comercial de calidad, con boutiques exclusivas, entendiendo la exclusividad en este caso como algo característico, propio y con personalidad. ¿Qué puede aportar al sector comercial que se traslade a nivel del estado español

ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

Hondarribiko merkataritza ados dago sektoreari buruz irudi hori zabaltzearekin?
Eskerrik asko.

la imagen de que Hondarribia se ha convertido en una atestada calle comercial repleta de tiendas de souvenirs? ¿El comercio de Hondarribia está de acuerdo con que se traslade esta imagen del sector?
Gracias.

**ALKATE JAUNA:** Bueno, elkarrizketa bat La Sexta katean ateratzen denean ez da Gobernu Talde honetatik estatu espainoleko testuingurua irakurketa egiten duen balorazio bat egiten, baizik eta galdetegi bat egiten da komunikabide batetik, eta erantzuten da Udal ikuspegi batetik; kasu horretan La Sextan gertatu zen, Udal ikuspegi batetik egin zen galdetegi baten erantzuna. Turismoari dagokionean bai aipatuko dut, noski, Gobernu talde honetan kezka bat dagoela, kezka badagoela bizitzen ari garen turismo etorrera masiboarekin, ereduarekin berarekin ere, eta horregatik, lehen aipatu dugu aurrekontuetan jasota dagoela turismoaren inguruko azterketa bat egiteko, Bidasoa Bizirikekin egiten ari garen lanketa, Foru Aldundiarekin berarekin egiten ari garen lanketa ere, eta partekatzen da nolabait deialdi masiboak egitea baino askoz ere egokiago iruditzen zaigula erakundeetatik nola gustatuko litzaigukeen jendea etortzea transmititu beharra daukagula. Ezin duela bilakatu Hondarribiak Donostian ezin dutelako bisita gidatuak, Free Tour bezalako bisita gidatuetan etortzea Hondarribira Donostiako turismo sektoreko Free Tour guztiak autobusetan Hondarribira, eta ezin duela izan Hondarribiko natur eremuak kaleetaraino 4x4 bezalako ibilgailuekin jaitsi eta han asteburua pasatzeko ereduko turismoa. Hau da, ulertzen dugu turismoari ez diogula barrerarik jarri nahi, ulertzen dugu Hondarribiarrok gure herrian, gure kaleetan bizi nahi dugula, baina horregatik jakinarazi behar dugula, eta horretarako gaude erakundeak deialdi zabal eta masiboak egin beharrean, zein modutan nahi dugun jendeak gure herria bisitatzea, eta hori da lantzen ari garen helburua, eta hori da egiten ditugun adierazpenen lanketen funts nagusia. Zu ere gogoaz geratzen zara, ala?

**EL SR ALCALDE:** Bueno, cuando una entrevista sale en la cadena La Sexta, no se hace desde este Equipo de Gobierno una valoración que haga lectura del contexto del Estado español, sino que se hace un cuestionario desde un medio de comunicación y se responde desde una perspectiva Municipal; en este caso ocurrió en La Sexta, y se trató de la respuesta desde una perspectiva municipal a un cuestionario que se realizó. En el caso del turismo sí que voy a mencionar, por supuesto, que en este equipo de Gobierno existe una preocupación por la llegada masiva de turismo que estamos viviendo, incluso con el modelo mismo, por lo que, como hemos mencionado, está presupuestado hacer un análisis del turismo, así como un estudio que estamos realizando con Bidasoa Activa, y un estudio con la propia Diputación Foral, de los cuales se deduce que de alguna manera nos parece mucho más adecuado que hacer llamadas masivas, transmitir desde las instituciones cómo nos gustaría que nos viniera la gente. Que Hondarribia no puede convertirse en una visita guiada porque en Donostia no se pueda, que no puede convertirse en visitas guiadas como Free Tour a Hondarribia en autobús; en todos los Free Tour del sector turístico de Donostia desplazados a Hondarribia. Y que no puede ser un modelo de turismo para bajar hasta las calles con vehículos como 4x4 para pasar el fin de semana. Es decir, entendemos que no queremos poner barreras al turismo, entendemos que los/as vecinos/as queremos vivir en nuestras calles, en nuestra ciudad, pero por eso tenemos que comunicarlo, y para eso estamos las instituciones. En vez de hacer llamadas al turismo amplias y masivas, estudiar de qué manera queremos que la gente visite nuestra ciudad, y ese es el objetivo en el que estamos trabajando, y ese es el fundamento de los trabajos de las declaraciones que hacemos.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, gainera bere galderak bi ikuspuntu zituen. Bigarrena komertzioaren inguruan galdera zihoan, eta ez, ebidentemente zure hausnarketa konpartitzen dut, Hondarribiko komertzioa ez dela souvenir

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, además, su pregunta tenía dos puntos de vista. La segunda cuestión versaba sobre el comercio y no, evidentemente comparto tu reflexión, que el comercio de Hondarribia no es comercio de souvenir, tenemos



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

komertzioa, oso komertzio ehun sendoa daukagu, baina bai esan beharrean gaude topatu genuen komertziorako dinamizazio planarekin nahiko izututa gelditu ginela, izan ere oso oso zentratuta zegoen turismoan, “oso” ez, zentratuta zegoen turismoan, ez zuen inolako atentziorik jartzen bertakoaren sarean eta herritarrei begiratutako komertzio horretan, eta beraz azterketa edo plan berri bat egiteko lanetan gaude, askoz ere ikuspegi sozialagoarekin, eta inkluso antropologikoarekin, eta galtzen ari garen betiko komertzio hori babesteko ere bai. Horretarako ordenantzak aldatu beharko ditugu, horretarako Auzo Bihotzen tresna martxan jarri dugu, eta gainera pozten nau horrela spoiler txiki bat egitea; eta orain, datorren astean aterako den Hondarribia aldizkarian, merkatariei zutabe berri bat eman diegu, Atxamarta Azoka, izena duena, eta bertan hilabete oro hilabete oro ahotsa emango diegu guk ere haiek ezagutzeko eta gure arteko harremana estutzeko, izan ere Gonzalo, recojo el guante, hiri more baten baitan merkatariak dira gure begi eta gure belarri, eta genero ikuspegi batetik mantendu behar ditugu. Eta…horixe.

un tejido comercial muy fuerte, pero sí que nos hemos encontrado con un plan de dinamización para el comercio que nos asustó bastante, porque estaba muy centrado en el turismo, no “muy centrado", estaba “centrado” en el turismo; no ponía ningún tipo de atención en la red local y en ese comercio que mira a la ciudadanía. Por eso estamos trabajando en la elaboración de un nuevo estudio o plan, con una visión mucho más social, e incluso antropológica, y para proteger ese comercio tradicional que estamos perdiendo. Para ello tendremos que cambiar las ordenanzas, y para eso hemos puesto en marcha la herramienta Auzo Bihotz, y me alegra hacer así un pequeño spoiler; y ahora, en la revista Hondarribia que saldrá la semana que viene, hemos dado a los/as comerciantes una nueva columna, denominada Atxamarta Azoka, donde todos los meses les daremos voz para conocerlos/as y para estrechar nuestra relación, porque Gonzalo, recojo el guante, dentro de una ciudad morada, los/as comerciantes son nuestros ojos y nuestros oidos y debemos mantenerlos/as desde una perspectiva de género. Y... eso.

**CARRION JAUNA:** Bost-sei bat dauzkagu. Jakiteko. Orain Mendeluko bi gai dauzkagu galdetzeko, eta nahi baduzue erantzun, bestela ez da deus gertatzen. Mendelu auzoan TAO edo OTA jartzeko 850 dekretua sinatu zenuen. Eta gero 1.002a ere, zuzenketa txiki batekin. Apirilaren 4an, Gipuzkoako Boletinean publikatu zen, eta aste honetan bizilagunak gutunak jasotzen hasi dira. Honek galdera edo zalantza batzuk sortzen ditu. Auzokideek onartzen dute ekintza? Industria-gunean, Mendeluko parkean eta Gibeletan OTA jartzea? Noiz jarriko da martxan OTA Mendelun?

**EL SR CARRIÓN:** Tenemos unas cinco o seis preguntas. Para vuestro conocimiento. Ahora tenemos dos preguntas sobre Mendelu; si queréis contestad, si no, no pasa nada. Firmaste el decreto 850 por el que se instaló la OTA en el barrio de Mendelu. Y luego también el 1.002, con una pequeña corrección. El 4 de abril se publicó en el Boletin de Gipuzkoa y esta semana los/as vecinos/as han comenzado a recoger las cartas. Esto genera algunas preguntas o dudas. ¿La acción es aprobada por los/as vecinos/as? ¿El establecimiento de la OTA en zona industrial, parque de Mendelu y Gibeleta? ¿Cuándo se pondrá en marcha la OTA en Mendelu?

**ALKATE JAUNA:** Bueno, galdera hau uste dut hitz egina daukagula lehenagotik ere, ez naiz oroitzen Batzorderen batean edo Udalbatzan bertan, hitz egin genuen, Mendelu…. Batzordean edo Bozeramaile Batzordean, dekretuari buruz. Noiz jarriko den Mendelun TAO zerbitzua? Lehenbailehen. Badakit jada lanean badabiltzala, ez dakit margoketak egiten hasiak diren egun hauetan, baina egun hauetan bestela hasiko dira margoketa lanak egiten, makinak ere prest daude jartzeko, orduan lehenbailehen jartzeko asmoa

**EL SR ALCALDE:** Bueno, sobre el tema de esta pregunta creo que ya hemos hablado anteriormente, no me acuerdo si en alguna Comisión o en el propio Pleno, hablamos, de Mendelu.... en la Comisión, o en la Junta de Portavoces, sobre el Decreto. ¿Cuándo se va a instalar el servicio de OTA en Mendelu? Lo antes posible. Ya sé que están trabajando, no sé si estos días han empezado a pintar el asfalto, pero si no es así empezarán estos días, las máquinas también están preparadas para colocarlas, entonces la



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

dago, eta ze helburu duen da pixka bat, nik uste dut, gakoa, ez? Zergatik eta ze helburu duen. Mendeluko auzokideak urteak dira aipatzen dutela arazoa daukatela aparkalekuarekin zerikusia duena, ez Mendelu auzokoek soilik, Hondarribia osoan badago neurri batean arazoaren sentsazio hori, eta, zer ondorioztatu genuen Mendelu auzoan? Bihurtu dela neurri batean inguruko herriko edo aparkaleku ofiziala, edo garajea, esango nuke, zeren Irunen TAOa zabaldu zenetik San Miguel auzoraino jendeak erabiltzen du Mendelu auzoa kotxea utzi bakarrik ez, baizik lanerako ibilgailu tresna duenak ere bertan uzten du, eta askotan bata bestearekin truke egiten du, eta bihurtu da eremu bat non garaje…kale azaleko garaje bat bihurtu den. Eta asmoa da, neurri batean, mugatzea egonaldia, ez kobratzea, baina bai mugatzea, eta jarri den eredua, azaldu nizuen bezala Bozeramaile Batzorde hartan…jarri den eredua da 4 orduko doako zerbitzua izango dela, baina 4 ordu ondoren mugitzeko beharra edukiko duela auto edo ibilgailu hori, eta oztopatzea baino laguntzea da auzotarrek aparkalekua izan dezaten.

intención es ponerlas en marcha cuanto antes. Y ¿qué objetivo tiene? Yo creo que un poco, esa es la clave, ¿no? Por qué y con qué objetivo. Hace años que los vecinos de Mendelu hablan de un problema con el aparcamiento, no sólo los del barrio de Mendelu, en toda Hondarribia hay en parte esa sensación de problema y… ¿qué concluimos en el barrio de Mendelu? Yo diría que en parte se ha convertido en el aparcamiento oficial o garaje de la localidad o ciudad contigua, porque desde que se instauró en Irun la OTA hasta el barrio San Miguel la gente usa el barrio de Mendelu no sólo para dejar el coche, sino que lo deja el que tiene el vehículo de trabajo, y muchas veces se utiliza para el intercambio, convirtiéndose en un espacio de garaje... se ha convertido en un garaje de superficie de calle. Y lo que se pretende es, en parte, limitar la estancia, no cobrar, pero sí limitar. Y el modelo que se ha puesto, como ya os expliqué en aquella Junta de Portavoces... el modelo que se ha puesto es que será un servicio gratuito de 4 horas, pero que el coche o vehículo tendrá que moverse tras las 4 horas. El objetivo es ayudar a los/as vecinos/as, más que entorpecer, para que tengan aparcamiento.

**CARRION JAUNA:** Mila esker, baina galdetu dizut, barkatu, Igor, noiz, nola, eta ea bizilagunak ados dauden. Aztertu duzuen hori, edo ez.

**EL SR CARRIÓN:** Gracias, pero te he preguntado, perdona, Igor, cuándo, cómo y a ver si los vecinos están de acuerdo. Si eso lo habéis estudiado o no.

**ALKATE JAUNA:** “Noiz” esan dizut lehenbailehen, “nola” marrak margotu eta makinak jarrita, eta bizilagunekin partekatu da, auzo elkarteko bizilagunekin partekatu da…ez soilik partekatu, baizik eta auzoko eskaera bati erantzuna ematen zaionaren sentsazioa daukagu, auzotar guztiek izango dute txartela bat, beraiek ez dutelako izango 4 orduko muga hori, beraientzat doakoa izango da aparkalekua behar duten denbora guztian, eta soilik auzora gerturatzen direnek edukiko dute muga 4 orduz dohainik aparkatzeko aukera izanik. Zer bilatu dugu horrekin baita ere? Auzora etortzen diren senitartekoek eta denbora nahikoa izan dezaten eta ez dezaten arazorik izan edo ordaindu behar dutelako, edo trabak izan ditzaketelako beraien senitartekoak bisitatzeko. Orduan, banaka-banaka ez dakit auzotar guztiak ados dauden, baina niri, behintzat, kontra ez zait auzo elkartetik kontrako iritzi nabarmenik adierazi, eta ez dut jaso hori onartu zenez geroztik auzotarren kontrako iritzirik. Bai jakin badakit idatziren bat sartu dela

**EL SR ALCALDE:** Te lo he dicho, "¿cuándo?" cuanto antes, "¿cómo?" pintando las líneas e instalando las máquinas, y se ha compartido con los/as vecinos/as, se ha compartido con los/as vecinos/as de la asociación vecinal... no sólo lo compartimos, sino que tenemos la sensación de que se da respuesta a una demanda del barrio, que todos los vecinos tendrán unas tarjeta, ya que ellos/as no tendrán ese límite de 4 horas, para ellos/as será gratuito el aparcamiento todo el tiempo que precisen, y únicamente quienes se acerquen al barrio tendrán el límite de 4 horas de aparcamiento gratuito. ¿Qué queremos conseguir con ello? Que los familiares que se acerquen al barrio dispongan de tiempo suficiente y que no tengan problemas porque haya que pagar, o porque tengan trabas para visitar a sus familiares. Entonces, no sé si todos/as los/as vecinos/as individualmente están de acuerdo, pero al menos a mí no me ha llegado ninguna opinión contraria desde la asociación vecinal. Me consta que en el



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

Udalean industria-eremuko gune horretan OTA zerbitzua jartzea industria horietako jabekideek ez dutela begi onez ikusten; eta arkitektoarekin hitz eginda hor badaude lagapenerako izan behar zuten lur batzuk bere garaian ez zirenak lagapen horiek gauzatu. Guk egiten dugun intentzioa da han ere ez dadila bihurtu auzokideen eremua, nolabait, mugikortasuna bermatzen duen eremu bat, eta industria-gune horretan auzokideek duten arazoa beraiengana transmititzea; orduan intentzio horrekin egin dugu, argituko da ea lur lagapen horiek eman ziren, ez ziren eman…jabetzak Udalarena izan behar duen edo beraiena den, eta hori argituko dugu, baina asmoa behintzat bada ez transmititzea Mendelun piztu den arazo hori beste herriko eremuetara.
Horrekin erantzun da, edo…?

Ayuntamiento ha tenido entrada algún escrito en el que los copropietarios de estas industrias no ven bien la implantación del servicio de OTA en esta zona del ámbito industrial; y en conversaciones mantenidas con el arquitecto se ha hablado de que hay terrenos que estaban destinados a cederse que en su día no se cedieron. Nuestra intención es que tampoco allí se convierta el espacio vecinal, ese espacio que garantiza la movilidad, en un problema, y que se les transmita a ellos/as el problema que tienen los/as vecinos/as en ese espacio industrial. Entonces, lo hemos hecho con esa intención, se aclarará si se realizó esa cesión de terrenos o no….si la propiedad debe ser del Ayuntamiento u suya, y eso lo aclararemos, pero la intención es que no se transmita ese problema originado en Mendelu a otras zonas de la ciudad.
¿Con esto se ha contestado a la pregunta?

**CARRION JAUNA:** Bai. Beste bat, Mendelukoa, baita ere. Martxoaren 24an Mendeluko Mahaia deitu zen. Mendeluko elkarteko kideek Gai Zerrenda bat ekarri zuten, eta ez genuen denborarik izan Mahai hura bukatzeko, Gai Zerrenda horrekin, eta posta elektronikoz eskatu zuten idatziz erantzuteko, ea erantzun zaien, zeren ez dugu jaso erantzun horiek. Eskerrik asko.

**EL SR CARRIÓN:** Sí. Otra pregunta, también de Mendelu. El 24 de marzo se convoca la Mesa de Mendelu. Los miembros de la Asociación de Mendelu trajeron un Orden del Día y no tuvimos tiempo de terminar aquella reunión, aquel Orden del Día, y pidieron por correo electrónico que se respondiera por escrito; la pregunta es si se les ha respondido, porque no hemos recibido esas respuestas. Muchas gracias.

**ALKATE JAUNA:** Bada, horretan ez dakit ze galderari erantzutea eskatu zaion, edo zaizuen, edo eskatu duzuen zuek, ez daukat garbi zer esan nahi duzun.

**EL SR ALCALDE:** Pues en ese tema no sé a qué pregunta te refieres, o si se trata de una pregunta dirigida a vosotros/as, o si lo habéis pedido vosotros/as, no tengo claro lo que quieres decir.

**CARRION JAUNA:** Mahaiko deialdia egin zenean Gai Zerrenda bat ekarri zuten, eta ez genuen bukatu mahaia saio hartan, gero batzorde bat geneukan, eta altxatu behar izan ginen. Beraiek eskatu zuten bertan, eta gero emailez, idatziz erantzuteko falta ziren gaiez. Uste dut zirela Opengela, eta uholdeena…ez hori tratatu genuen, eta zerbait gehiago, eta ea idatziz erantzun zaien, zeren guk ez dugu jaso. Horregatik da, zeren denek egin zigun deialdia.

**EL SR CARRION:** Cuando se convocó la mesa trajeron un Orden del Día, y no terminamos la mesa en aquella sesión, ya que luego teníamos una comisión y tuvimos que levantarnos. Ellos/as lo pidieron allí, para que luego se contestara por email sobre los temas que faltaban para responder por escrito. Creo que los temas eran la Opengela, y las inundaciones... lo tratamos, y algún otro más. A a ver si se les ha respondido por escrito, porque nosotros/as no lo hemos recogido. Es por eso. Porque nos hicieron la convocatoria a todos/as.

**ALKATE JAUNA:** Bada, egia esateko ez dut oroitzen, zuek ez baduzue jaso nik esango nuke besteen erantzunik ere ez dudala jaso, eta bai gogoratu, neurri batean, Mendeluko Mahaiaren deitzailea Mendelu Auzo Elkartea dela, eta beraiek

**EL SR ALCALDE:** Pues la verdad es que no lo recuerdo, si vosotros/as no habéis recibido yo diría que tampoco yo he recibido respuesta de los/as demás; y sí, en parte, recuerdo que el convocante de la Mesa de Mendelu es la Asociación de



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

egiten digutenean deialdia, noski, elkartzen garela, ateak zabaldik dituztela, eta akta…esango nuke, gainera, partekatu zela, ez?

Vecinos Mendelu, y que cuando ellos nos convocan, claro, nos reunimos, que tenemos las puertas abiertas, y el acta... diría que, además, se compartió, ¿no?

**LEKUONA ANDREA:** Bilera bat egitea eskatu genien…

**LA SRA LEKUONA:** Les solicitamos hacer otra reunión…

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, baina azkenean ez ginen gelditu, eta horretan geratu zen.

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, pero al final no concretamos, y la cosa se quedo así.

**CARRION JAUNA:** Gai Zerrenda bat geneukan, eta bidali zen Gai Zerrenda horretan iritsi ginen bi puntura, beste bi puntu eskatu zutela idatziz erantzutea. Plan Generala eta Opengela. Eta ea erantzun zaien bi galdera horiei. Ez baldin bada hala, eskatzen dugu idatziz erantzutea. Listo.

**EL SR CARRIÓN:** Teníamos un Orden del Día y en ese Orden del Día que se envió, llegamos a dos puntos, y solicitaron que se respondiera por escrito acerca de los otros dos puntos: el Plan General y la Opengela. Y la pregunta es si se ha respondido a ambas preguntas. Si no es así, solicitamos respuesta por escrito. Listo.

**ALKATE JAUNA:** Jasotzen dugu, pentsatzen dut idatzizko erantzun horiek Udal Talde guztioi eskatuko zizkigutela, zeren bertan Udal taldeak izaten gara; nik ere besteena ez dut jaso, zeren ahaztu bazaigu agian izan daitekeela besteen erantzuna jasotzerakoan ere seguru aski oroitu ere oroituko ginateke. Eta erantzuteko ez dago inolako arazorik, noski.

**EL SR ALCALDE:** Queda recogido, supongo que estas respuestas escritas nos las pedirían a todos los Grupos Municipales, porque allí solemos estar los Grupos Municipales; yo tampoco he recogido la de los demás, porque si se nos ha olvidado puede ser que sea porque no recibimos la respuesta del resto, si no nos habríamos acordado. Y no hay ningún problema para responder, por supuesto.

**CARRION JAUNA:** Orain aparkalekuarekin. Udara gainean dugu, eta oraindik aparkaleku arazoak konpontzeko proposamenak ez dauzkagu mahai gainean, eta ez da proposatu. Bakarrik Presako parkina kendu dela. Zer dauka pentsatua Udal Gobernuak hau konpontzeko?

**EL SR CARRIÓN:** Ahora el tema del aparcamiento. Estamos a las puertas del verano y todavía no tenemos propuestas para solucionar los problemas de aparcamiento. Lo único, que se ha eliminado el parking de Presa. ¿Qué piensa el Gobierno Municipal para arreglar esto?

**ALKATE JAUNA:** Bueno, uste dut honetaz galdetu zenigutela jada eta erantzuna eman zela…igual Alderdi Sozialistak galdetu zuen. Esan genizuen ari ginela alternatiba desberdinak bideratzen, Jaurlaritzarekin ari ginela lur espazio baten erabilera aldatzeko proposamena beraiei zegokien baimentzea, eta oraindik ez dugu erantzun baiezko hori jaso; beste alde batetik ere egin dugu lanketa Aireportuko espazio bat lagapena eskatzeko, hainbat bilera edo hainbat saiakera egin ditugu gai horren inguruan, eta ezezkoa erantzun zaigu, beraiek egiteko asmoa dutela, ez dakigu noiz, ez dute aurrekonturik, eta ez dakigu noiz, baina ezezkoa erantzun zaigu; eta gaur bertan onartu den kreditu gehigarrian jasota dago Eskapatxulo eremuan lur batzuk erosteko

**EL SR ALCALDE:** Bueno, creo que ya nos preguntasteis sobre este tema y que se respondió... creo que fue el Partido Socialista quien preguntó. Ya os dijimos que estábamos canalizando diferentes alternativas, que estábamos en contacto con el Gobierno Vasco, a quien corresponde autorizar la propuesta de cambio de uso de un espacio de suelo, y todavía no hemos recibido esa respuesta afirmativa. Por otra parte, hemos solicitado la cesión de un espacio del Aeropuerto, se han realizado varias reuniones o intentos en torno a este tema, y se nos ha respondido que no, que tienen intención de hacerlo ellos, no sabemos cuándo, que no tienen presupuesto, y no sabemos cuándo, pero se nos ha respondido que no; y en el crédito adicional aprobado hoy mismo está



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

aukera, eta hori ere bada neurri batean erostea lortzen baldin badugu lur eremu hori behintzat, aparkalekura bideratu ahal izateko planteatzen ari garen alternatibetako bat. Beraz, gure esku dagoen aldetik ahal dugun guztia egiten ari gara lursail bat lortzeko edo….bat baino gehiago, egia esanda, lortzeko saiakeran, eta momentuz baiezko erantzunik ez dugu izan, eta gu prest gaude, noski, jarri behar diren baliabideak jartzeko lurzoru alternatiba bat lortzen baldin badugu. Baina zuek badakizue…hemen gauden guztiok badakigun bezala, oso ongi, zailena gure herrian dela lursail alternatiba bat lortzea, eta lortuko bagenu segituan jarriko ginateke eta guretzat oso interesgarriak ziren hainbat saiakera… pare bat behintzat egin ditugu, eta momentuz batean ezezkoa jaso dugu eta bestean baiezkorik oraindik ez dugu jaso.

recogida la posibilidad de adquirir unos terrenos en la zona de Eskapatxulo, que también es una de las alternativas que se está planteando si conseguimos adquirir ese terreno para poder destinarlo al aparcamiento. Por lo tanto, estamos haciendo todo lo posible por nuestra parte para conseguir una parcela o, en realidad, para conseguir más de una..., y de momento no hemos tenido respuesta afirmativa, y nosotros estamos dispuestos/as a poner los recursos necesarios si conseguimos una alternativa de suelo. Pero vosotros/as sabéis... como todos los/as que estamos aquí sabemos, perfectamente, que lo más difícil es conseguir una alternativa de terreno en nuestra ciudad, y si lo conseguimos nos pondríamos inmediatamente a ello. Hemos hecho al menos un par de intentos muy interesantes para nosotros/as... y de momento hemos recibido una negativa y en el otro caso no hemos recibido aún una respuesta afirmativa.

**CARRION JAUNA:** Eskerrik asko. Kasino Zaharreko tabernari lotuta, urte bete pasa da jada, eta oraindik ez dago martxan taberna edo kafeteria zerbitzua. Ez daukat informazioa zehazki honi buruz, eta bertako erabiltzaileak eskatzen ari dira. Zer dauka buruan Udal Gobernuak? Ze zerbitzu mota nahi du eman? Noizko? Nola? Zeren modu desberdinak zeuden…Josu begira ari zarete, Josuri galdetuko diot…Kasino Zaharreko taberna edo kafeteria martxan jartzeko…urte bete pasa da, egin zen bere garaian ikerketa ekonomiko bat, txosten bat, jarri zen lizentzia edo aktibitatea buruan, baina hor bazegoen…nola kudeatu taberna hori, batez ere zeintzuk ahal ziren sartu, ze ordutegirekin, zenbat…bakarrik jubilatuentzat, kanpoko jendearentzat, eta hori dena; eta horri buruz ez dakigu deus ere, agian baduzue zerbait landua, eta gustatuko litzaiguke, ez bada gaur, erantzuna jasotzen, hurrengo Batzordean…bai Hirigintzakoan edo bai Osasuna Sendotzeko Batzordean.

**EL SR CARRION:** Gracias. En el tema del bar del Kasino Zaharra, ha pasado ya un año y aún no está en funcionamiento el servicio de bar o cafetería. No tengo información concreta al respecto y los usuarios del mismo están solicitando información sobre ello. ¿Qué tiene en mente el Gobierno Municipal? ¿Qué clase de servicio quiere ofrecer? ¿Para cuándo? ¿Cómo? Hay que tener en cuenta que había diferentes modos…le estáis mirando a Iosu y me dirigiré a él: la puesta en marcha del bar y cafetería del Kasino Zaharra…ha pasado ya un año, en su día se realizó un estudio económico, un informe, se concedió licencia de actividad, pero ahí había un problema, como gestionar la actividad, sobre todo quíénes podían entrar, con qué horario, cuántos…. Si sería sólo para jubilados/as, si sería para personas externas, y todo eso; y no sabemos nada sobre ello, quizás tenéis algo elaborado, y nos gustaría, si no recibimos la respuesta hoy, tenerla en la próxima Comisión, bien en la Comisión de Urbanismo, bien en la Comisión de Fortalecimiento de la Identidad.

**PEÑA JAUNA:** Eskerrik asko, Gonzalo. Esango dizut…lehenengo, egia da urte bat pasa dela hauteskundeetatik, eta zuekin Batzordean ere esan nuen, Gizarte Zerbitzuetan bazeudela urgentziazko gauza batzuk, batez ere legeari begira, eta legea bete behar zelako; horregatik atera da lehenengo sikologoen inguruan edo, adin txikikoen inguruan egin dugun kontratazio hau, zaintzaren gaia ere

**EL SR PEÑA:** Gracias, Gonzalo. En primer lugar, es cierto que ha pasado un año desde las elecciones, y que, como dije en la Comisión, en los Servicios Sociales había temas urgentes, sobre todo de cara a la ley, y que había que cumplir la ley; por ello ha salido en primer lugar el tema de los psicólogos, esta contratación que realizamos en torno a los/as menores de edad; el tema de los



ESKUddc47ef0-e442-4dee-8efd-8237640d4a1d

